# Euskadi Osorako Erabakiak
# Disposiciones Generales del País Vasco

## INDUSTRIA ETA ENERJIA-SAILA

479

Industria eta Enerjiako Sailburuaren saloz, Otsailaren 28ko 33/1983 DEKRETOA, Teknolojia aldetik zuduzko ogasun eta eskubideen Araupideari buruz.

Euskadiko herri-alorrean, teknolojia aldetik ogasun aurreratuen gero eta gehiagoko beharrak, teknolojiari indar emateko eta ekonomia alorreko iharduna suztatzeko xedez, esandako beharra, erdiko epe batetan, ezagutzeko eta egoki antolatzeko bideak finkatzea aholkatzen du. Dekreto honek, xede horri erantzuten dio, bertan, gaia antolatzen duten arau nagusiak ematen direla.

Hori dela eta, Industria eta Enerjiako Sailburuaren saloz, Jaurlaritzak 1983.eko Otsailaren 28ko Osoko Bilkuran onartu ondoren, Lehendakari naizenez neure onarpena eman ondoren, honako hau

ERABAKITZEN DUT:

*Lehenengo atala*

1. Euskadiko Autonomia Elkarteko Sailek, Erakunde Burujabeek edo norbanako legepeko Herri-Erakundeek teknolojia aldetik zuduzko ogasunak erostea, alogeran hartzea, saltzea eta iraunaraztea, Dekreto honetan finkatutako araupideari menpeturik geratuko dira.

2. Informatika-ogasunen kasuan, bere berarizko arauei atxikita egongo da.

*Bigarren atala*

Dekreto honen erabilpenaren ondorioetarako, Industria eta Enerjiako Sailburuaren zio eta guztizko Aginduz finkatuko den zerrendan dauden ogasun mugikorrak teknolojia aldetik zuduzkotzat joko dira.

*Hirugarren atala*

1. Dekreto honetan araupetzen diren akurapenei atxikitako Oinarrizko arauen edo Teknika-Baldintzen Zerrendek, Berarizko Arduralaritza-Baldintzetakoek, horretarako gaitasuna duen sailak onartu aurretik, Industria eta Enerjia-Saileko Teknolojia-Artezkaritzaren beharrezko erizpena eduki beharko dute. Artezkaritza horrek bere erizpena hamar laneguneko epearen barruan eman beharko duela.

•Aurrean aipatutako epean erizpena eman ezak, baiezkoa dela ulertzea ekarriko du, eta Zehaztapidetza bideratzeari jarraiki ahal izango zaio.

2. Sailburuak izendatutako Industria eta Enerjia-Saileko ordezkari bat, gutxienez, mahaikide delarik, arau arruntei atxikiz izendatutako Akurapen-Mahaiak ikuskatuko ditu lehiatzaileen eskaintzak.

3. Dagozkien Zerrendetan, edo Lehiatzaileen eskaintzetan, dauden teknika-eskakizunei buruz, Industria eta Enerjia-Sailaren erizpena ezezko izango balitz, eta Akurapenaren Ihardutze-Sailarena berorrekin bat etorriko ez balitz, bat ez etortzea Dekreto honen bosgarren atalean esandako moduan erabakiko da.

## DEPARTAMENTO DE INDUSTRIA Y ENERGIA

479

DECRETO 33/1983 de 28 de Febrero, a propuesta del Consejero del Departamento de Industria y Energía, sobre régimen de los bienes y derechos de interés tecnológico.

La creciente demanda del sector público vasco de productos de tecnología avanzada aconseja establecer procedimientos que permitan una identificación y racionalización de dicha demanda a medio plazo, con objeto de fomentar la tecnología y promocionar la actividad económica general. A este objetivo responde el presente Decreto, en el que se establecen las principales normas que regulan la materia.

En su virtud, a propuesta del Consejero del Departamento de Industria y Energía, previo acuerdo del Pleno del Gobierno Vasco en su reunión del día 28 de Febrero de 1983, y con mi aprobación, como Presidente del Gobierno,

DISPONGO:

*Artículo primero*

1. La adquisición, arrendamiento, enajenación y mantenimiento de bienes de interés tecnológico por los Departamentos, Organismos Autónomos o Entes Públicos de derecho privado de la Comunidad Autónoma de Euskadi quedará sometida a la regulación establecida en el presente Decreto.

2. En el caso de bienes informáticos, se estará a lo que dispongan sus normas específicas.

*Artículo segundo*

Se considerarán bienes de interés tecnológico, a efectos de la aplicación de este Decreto, los bienes muebles comprendidos en la relación que se establecerá por Orden motivada del Consejero del Departamento de Industria y Enegía.

*Artículo tercero*

1. Los Pliegos de Bases o Condiciones Técnicas, y los de Condiciones Administrativas Particulares que se refieran a contratos sometidos a la regulación de este Decreto deberán ser informados preceptivamente, antes de su aprobación por el órgano competente, por la Dirección de Tecnología del Departamento de Industria y Energía, la cual deberá emitir su informe en el plazo de diez días hábiles.

La falta de emisión de informe, en el plazo anteriormente señalado, dará lugar a que se entienda que es favorable, y podrá proseguirse la tramitación del expediente.

2. Las ofertas de los licitadores serán examinadas por la Mesa de Contratación, nombrada con arreglo a las normas comunes, de la que formará parte, al menos, un representante del Departamento de Industria y Energía, nombrado por su Consejero titular.

3. Si el informe del Departamento de Industria y Energía fuere desfavorable en cuanto a los requisitos técnicos contenidos en los respectivos Pliegos, o en las ofertas de los licitadores, y el Organo de Contratación discrepare del mismo, la resolución de la discordia se someterá al procedimiento establecido en el artículo quinto de este Decreto.

*Laugarren atala*

Jaurlaritzak, Industria eta Enerjiako Sailburuaren, eta berariz doakien Sailetako Sailburuen saloz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomia-Batzordeak baiezko erizpena eman ondoren, honako hau egin ahal izango du:

a) Teknolojia aldetik zuduzko ogasunak akuratzeko, sailen edo sailarteko erdiko epeko egitamuak finkatzea.

b) Egitamuak alorka bateratzea, hasera batetan honako hauek finkatuz:

– Hezkuntza.

– Osasunketa.

– Herrizaingoa.

c) Modu berean izendatutako Egitamu-Buruzagien ardurapean, egitarauak gerta edo egitera daitezela erabakitzea; Buruzagi horiek, iharduzez, Teknolojia-Artezkaritzaren bitartez, Industria eta Enerjia-Sailaren menpe egongo dira, dagokien erakuntza-menpetasunaren kaltetan gabe.

*Bosgarren atala*

Orotariko nahiz Erakunde-mailako Arduralaritzako edozein iharduze-sail edo erakunde, hirugarren atalean esaten denari buruz, Industria eta Enerjia-Sailaren erizpena edo saloarekin bat ez baletor, arazoa, Sail horretako Sailburuaren saloz, eta Ekonomia-Batzordeari entzun ondoren, Jaurlaritzak ebatziko du.

AZKEN ERABAKIAK

*Lehenengoa.*—Industria eta Enerjiako eta Ekonomia eta Herriogasuneko Sailburuek, dagokien alorretan, Dekreto honetan erabakitakoa osatzeko beharrezko diren aginduak emango dituzte.

*Bigarrena.*—Dekreto hau, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadin egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Gasteiz, 1983.eko Otsailak 28.

Lehendakaria,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

Industria eta Enerjiako Sailburua,
XABIER GARCIA-EGOTXEAGA.

*Artículo cuarto*

El Gobierno, a propuesta del Consejero de Industria y Energía, y de los titulares de los Departamentos directamente interesados, y previo informe favorable de la Comisión Económica del Gobierno Vasco, podrá:

a) Establecer programas departamentales o interdepartamentales a medio plazo para la contratación de bienes de interés tecnológico.

b) Integrar los programas por áreas, estableciéndose inicialmente las de:

– Educación.

– Sanidad.

– Interior.

c) Determinar que los programas sean elaborados o gestionados bajo la responsabilidad de Jefes de Programas, nombrados por el mismo procedimiento, y que se considerarán en todo caso en dependencia funcional del Departamento de Industria y Energía, a través de la Dirección de Tecnología, sin perjuicio de la dependencia orgánica que les corresponda.

*Artículo quinto*

Si cualquiera de los Organos o Entes de la Administración General o Institucional de la Comunidad Autónoma de Euskadi mencionados en el artículo primero de este Decreto discrepara del informe o propuesta del Departamento de Industria y Energía, en los supuestos recogidos en el artículo tercero, resolverá la cuestión el Gobierno, a propuesta del Consejero del mismo Departamento, oída la Comisión Económica.

DISPOSICIONES FINALES

*Primera.*—Los Consejeros de Industria y Energía, y de Economía y Hacienda dictarán, en el ámbito de sus respectivas competencias, las órdenes precisas para el desarrollo de lo dispuesto en este Decreto.

*Segunda.*—El presente Decreto entrará en vigor al día siguiente de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

Dado en Vitoria-Gasteiz, a 28 de Febrero de 1983.

El Presidente,
CARLOS GARAIKOETXEA URRIZA.

El Consejero de Industria y Energía,
JAVIER GARCIA-EGOCHEAGA.

# Agintariak eta Lanarigoa
# Autoridades y Personal

## Norgehiagoka eta Lehiaketak
## Oposiciones y Concursos

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA-SAILA**

**480**

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza-Sailaren 1983.eko Martxoaren 18ko AGINDUA, O.H.O.-ko Irakaslegoan, Euskal Herrian dauden 1.200 lan-toki huts sartzearen zain betetzeko baztertze-indarreko saiotarako deia eginez.

**DEPARTAMENTO DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION**

**480**

ORDEN del Departamento de Educación del Gobierno Vasco, de 18 de Marzo de 1983, por la que se convocan pruebas selectivas para la provisión de 1.200 vacantes de profesores de E.G.B. en expectativa de ingreso, existentes en el País Vasco.